

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ITURRIETAKO PARTZUERGOA

Landa- eta hiri-Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren erroldak eta 2024ko ekitaldiko zaborra biltzeagatiko tasa jendaurrean jartzea, bai eta kobratzeko epea ere

Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita hamabost egun balioduneko epean, interesatuek horiek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, 2024ko ekitaldiko kotizaziopeko erroldak daude jendaurrean, honako kontzeptu hauei buruzkoak:

- Landa- eta hiri-Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
- Zaborrak bildu eta ezabatzeko zerbitzua emateagatiko tasa.

Aipatutako epean errolda horiei alegaziorik aurkezten ez bazaie, kobratzeko epea hasiko da.

Borondatezko aldiaren kobratzeko epe hori 2024ko abenduaren 1etik 15era bitarteko egun baliodunetan izango da, biak barne.

Zerga horren eraginpeko zergadunek 10: 00etatik 14: 00etara egin ahal izango dute ordainketa gordailutegian, adierazitako epean.

Epe hori igarotakoan, premiamendu administratiboko prozedura betearazleari ekingo zaio, indarrean dagoen diru-bilketei buruzko erregelamendu orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik, eta ehuneko 20ko errekararekin ordaindu ez diren kuotak kobratuko dira; errekaru hori bateragarria izango da luzapenekoarekin.

Eta hala jakinarazten dut, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Agurainen, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria

GUSTAVO OCHOA ARRONIZ